

SAINT-PIERRE apezpiku jauna

(1884 - 1951)



Euskal-Erriak bere seme obenetarik bat galdu du. Itzal aundiko gizon bat: Monseigneur Jean Saint-Pierre apezpikua.

Bayona'n il zen 1952'ko Abenduaren 16'n. Milafranga'n sortua 1884 garren Martxoaren 18'n. Ez ziren gurasoak aberatsetatik eta lanak zituzten beren aurrak azten. Amar senide bait ziren eta zortzigarrena gure Joasttipi. Bizkitartean fede suhar bat bazuten eta orrek bere ondo-riok eman zitun. Etxebers eskola-maisua oartu zan Joasttipi'ren adimen zorrotzari et irakasletarako gorde nai izan zuen; baiñan beste dei batek oiñu biziagoa egiñik mutikoa Larresoro'ra bidali zuten. Ez zen aisa laketu lenengo egunetan: etxe-miña eltzen zitzaion Errobi aldera begiratzean, baiñan Abbadie buruzagi jaunak bazekien nola ar mutiko orren bihotz eria. Eta laister etxean bezala zegon Larresoro'n. Emendik Bayona'ko seminario aundira joan zen apez egin artio. Au 1908 garren urtean gerta zan. Ikaskizunak jarraituz Prantzia'ko Tolosa'n «*licencié ès lettres*» tituloa irabazi zuen eta 1910 urtean Erroma'n Doktor izen ospetsua eman zioten.

Bereala Baiona'ko San Andres'en apez-lagun jarri zuten eta andik amabost illabetera Hazparren'go mixiolari etxerako izendaturik. Bi urtez kurritu zuen Euskal-Erria jendeak harritzen zituela bere irakaspén eder eta sarkorrez eta bere euskera paregabez: Axular, Duhalde, Arbelbide eta Hiriart-Urruti'ren idazkiak lagun zitularik.

1914'ko Otsaillean Seminario aundira deitu zuten baiñan gudatea urbil zegon. Lehen egunetarik mobilisatua sarjento ibilli zen Charleroi, Marne, Verdun eta beste toki askotan, batere arriskoaren ajolarik gabe. Aipa-

men ederrak egin zizkioten eta bai eman gurutze eta medailla ainitz. Orduan *Euskalduna* astekarian idatzi zituen gerrako berri ta artikulo bikaiñak. Alemanek prisionero artu zuten Montsidier inguruan. Alemani'ra eramana izan zen eta an ere ez zuen astirik galdu: apez-gaientzako ikastetxe bat antolatu ta zuzendari agertzen zaigu. Noizpait gudatea amaitu zanean berantetsirik zegon Euskal-Errira itzultzeaz eta beste lagun batzuekin oñez abitu zen etxeruntz.

Berriz ere Seminario aundian sar arazi zuten «moral» erakustera ta predikaritzan nola bear dun izan. Beste lan anitzetan leia zan garai artan. 1921'garren urtean Blazy, Barbier, Elissalde eta Moulier adiskideekin «Gure Herria» aldizkaria sortu zuten.

Euskal idazle bezala ta *Anxuberro* izen-ordeaz «Kiriñño» saria irabazi zuan. 1922'n Apezpikuaren sekretario izendatu zuten; eta 1925'n Baiona'ko Katedralaren kalonje. Adema jaunak «*Euskalduna*» astekariaren buruzagitza utzi zualarik Saint-Pierre jauna egin zuten zuzendari eta bizi berri bat eman zion periodikoari. Aldi artan Baionan egin Eukaristi-Batzar ospetsuak su-emaille ta eragille bizkorrena Saint-Pierre kalonjea izan bide zun. Kartago'ko Goi-apezpikuak ezaguturik aren balioa apezpiku mailla goitarrera igo arazi zuen eta 1930'go Maia-tzean Gordus'eko apezpiku edo gotzai onetsi zuten aundi-kiro.

Monseigneur Saint-Pierre agurgarria Tunisi'ra joan zen lanera Kartago'ko apezpikuaren laguntzalle bezala. 1938 urtean itzuli zen Milafraga'ra alabearrez. Geroztik unat ez zen alfer egon ez. Bazabillen, konfirmatzen, itzaldi ta predikuak ematen, agintzen zizkioten elizkizun guzietan. Oroz gainetik Euskeraz, eta Euskal-Erriko zerez arras gogoetatua zagon. Euskaltzaindi'ko genun, «Gure Herriaren» gidari abar eta abar. Itz batez errateko: denetan argi eta langille.

Othoitz egin zagon beraz gure adiskide min eta apezpiku zen Mgr. Saint Pierre'ren alde et jarrrai dezagun euskaltzale suhar onek ideki daukun bidean.

P. L.